

## Zer ongarri erabili dezaket?

Baratze Parkeetan zein materia organiko erabili daiteke? Auzokidearen simaurra erabili daiteke? Etxean egindako konposta erabili daiteke? Auzoko dendan ekologikoa den ongarri ekologikoa dutela diote, baratzean erabili dezaket?

**Baratzezaintza ekologikoan garrantzi handia ematen zaio materia organikoaren jatorriari**, batez ere lurra eta lur azpiko urak kutsatu ez daitezen. Baina, lurra kutsatu daiteke materia organikoarekin? Bai, gerta daiteke. Horren adibide argiena simaurrak ditugu. Pentsuek dituzten osagaiak edo animaliei egindako tratamenduak kontrolatzen ez badira, simaurrean metal pisutsuak azaldu daitezke eta konpostatzen baditugu, hauen kontzentrazioa handitu egin daiteke, materialaren bolumena gutxitu arren, metalak ez baitira desagertzen.

Horregatik guztiagatik, Baratze Parkeetan erabili daitekeen materia organikoa honakoa izan daiteke:

- **Abeltzaintza ekologikoko simaurra.** Mota honetako produkzioak bere etiketatik bereizten dira.
- **Abeltzaintza estentsiboa.** Identifikatzeko zailagoa da, baina oro har, hektareako animalia kopuru txikia izaten dute, ingurunean aske hazitakoak. Ukuiluan azpiak ez dira kutsatuta egon behar, argi naturala izan behar dute eta nagusiki larrean elikatuko dira edo inguruko bazkalekuetan bildutakoarekin.
- **Bilketa selektiboko konposta**, materialaren garbitasuna bermatuko dutenak. Atez atekoaren edo 5. edukiontzia bidez ondo bildutako materiala izan behar da eta analisien bidez aipatutako kutsagarririk gabeak direla frogatuz. Gipuzkoako Konposta kasu honen barruan legoke, A+ Kalitateko Konpost gisa egiaztatua baitago eta Sandach baimena ere badu. [Informazio gehiago](#)
- **Konpost komertziala.** Hainbat konpost komertzial daude: landare jatorri garbia dutenak, animalia jatorria dutenak, zizare-humusa eta animalia jatorria duten azpiproduktuak. Edozein kasutan, nekazaritza ekologikoaren etiketa ofiziala izan behar dute.



## ¿Qué abono puedo usar?

¿Qué materia orgánica podemos emplear en los Baratze Parkea? ¿Puedo usar el estiércol de mi vecino? ¿Puedo traer el compost que hago en casa? En la tienda de mi barrio tienen un abono que dicen que es ecológico: ¿lo puedo usar en la huerta?

**En la agricultura ecológica se le da mucha importancia a la procedencia de la materia orgánica**, sobre todo para garantizar que no se contamine la tierra ni las aguas subterráneas. ¿Pero es posible contaminar la tierra con materia orgánica? Sí es posible, y el ejemplo más claro es el de los estiércoles. Si no se controlan bien los componentes que tienen los piensos o los tratamientos que se les hace a los animales pueden aparecer metales pesados en el estiércol. Si además compostamos este estiércol, la concentración de metales pesados se hace aún mayor, ya que disminuye el volumen del material, pero los metales no desaparecen.

Por todo ello, en los Baratze Parkea podremos utilizar estos tipos de materia orgánica:

- **Estiércol de ganadería ecológica.** Este tipo de producción se identifica por su etiqueta.
- **Estiércol de ganadería extensiva.** Este es un poco más difícil de identificar, pero en general son explotaciones con pocos animales por hectárea, que crecen libres. En el establo, la cama no debe estar contaminada y debe tener luz natural. Este ganado se alimenta principalmente en el prado o con pasto procedente del entorno próximo.
- **Compost procedente de recogidas selectivas** que garanticen la limpieza del material. Debe ser materia bien seleccionada a través del puerta a puerta o a través del quinto contenedor, compostada y con analíticas que demuestren la inexistencia de los contaminantes mencionados. Es el caso del compost Gipuzkoako Konposta, que está acreditado como compost de Calidad A+ y que cuenta con la autorización Sandach. [Más información](#)
- **Compost comercial.** Existe multitud de compost comerciales que pueden ser de origen totalmente vegetal, o animal, humus de lombriz o subproductos de origen animal. En cualquier caso, todos deben de tener la etiqueta oficial de la agricultura ecológica.

